

ERRESEINA

**Teaching through Basque:
Achievements and Challenges**

Language, Culture and Curriculum aldizkaria, 21. zenbakia (2008ko 1.a)

Jasone Cenoz (Ed.)

<http://www.multilingual-matters.net/lcc/021/1/default.htm>

Pablo Suberbiola

Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: pablo@soziolinguistika.org

Nazioartean zabalpena duten argitalpenek normalean beste lekuetan egindako lanak eta ikerketak ezagutzeko balio izaten digute. Jasone Cenoz irakasleak koordinatu eta kudeatu duen *Language, Culture and Curriculum* nazioarteko aldizkariaren 21. zenbaki honek ere (2008ko maiatzean argitaratua) hori eskaini nahi die beste lekuetan euskal irakaskuntzaren emaitzak ezagutu nahi dituztenei.

Cenozek berak eginiko sarrerarekin batera, zazpi artikulua biltzen ditu euskarazko irakaskuntza-sistemari eta bere emaitzei eskainitako zenbaki monografiko honek, arreta berezia jarritz irakaskuntza-sistema horrek eman dituen eta ematen dituen emaitzei, hala nola horien gainean egin diren ikerketei.

“Kanpokoak” ez ezik ordea, gai hauetan interesa duen BAT aldizkariko irakurle “eleanizdunak” ere informazio eguneratua aurkituko du —ingelesez— argitalpen honetan. Asmo horrekin laburtu ditugu hemen bertako artikuluen nondik norakoak.

Artikuluetan jasotako informazioa ia erabat EAEn eta Nafarroan egindako azterketa eta ikerketei buruzkoa da. Bertan, azken 25 urteotan euskal irakaskuntzan izandako lorpenak aztertzen dira, eta baita gaur egun begien aurrean dituen erronkak ere.

Lehen bi artikuluetan, EAEko eta Nafarroako hezkuntza elebidunaren eta eleanizdunaren zenbait alderdi aztertzen dira.

— M. Zalbidek eta J. Cenozek eginikoa da lehena: “Bilingual Education in the Basque Autonomous Community: Achievements and Challenges” (*Hez-*

kuntza elebiduna Euskal Autonomi Erkidegoan: lorpenak eta erronkak). Lehenik laburtu egiten dira azken 25 urteotan EAEko hezkuntza-sisteman egin diren aldaketak: euskarak irakaskuntza-hizkuntza gisa ezagutu duen hazkunde nabarmena, eta horrek izan dituen ondorioak irakasleen prestakuntzan eta euskarazko irakas-materialen garapenean. Ondoren, EAEn euskara bidezko irakaskuntzak gaur egun eta etorkizunean (izango) dituen erronkak azaltzen dira: eredu elebidunen bilakaera eta beste erronka batzuk.

— Bigarren artikuluan, N. Orozek eta P. Sotesek Nafarroako hezkuntza elebiduna dute aztergai: “Bilingual Education in Navarre: Achievements and Challenges” (*Hezkuntza elebiduna Nafarroan: lorpenak eta erronkak*). 1986ko Euskararen legeak eta zonaldekako banaketak izan duen eragina aztertzen da, A, G eta D ereduak izan duten bilakaera eta azken hau hartzen ari den erreferentzialtasuna.

Hurrengo hiru artikuluetan, EAEko —batez ere— eta Nafarroako hezkuntzaren emaitzen gaineko ikerketak aztertzen dira:

— J. Sierrarena da lehena: “Assessment of Bilingual Education in the Basque Country” (*Hezkuntza elebidumaren ebaluazioa Euskal Herrian*). A, B eta D eruedetako ikasleek akademikoki eta gaztelaniaren ezagutzan izango zituzten emaitzei buruzko hasierako zalantzak azaltzen ditu, eta nola ahuldu ziren horiek EIFE ikerketen (1989) eta Espainia mailan eginiko ebaluazioen datuak ezagututa (1995). Geroztik PISA ebaluazioan (2000) eta *Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua* azterketan (2004) ikasleek lorturiko emaitzak ere azaltzen dira.

— K. Santiago, J.F. Lukas, L. Joaristi, L. Lizasoain eta N. Moyano dira hurrengo artikuluen egileak: “A Longitudinal Study of Academic Achievement in Spanish: The Effect of Linguistic Models” (*Gaztelaniazko emaitza akademikoen azterketa longitudinala: ikastereduen ondorioak*). 1999 eta 2003 urteen artean EAEko DBHko ikasleek gaztelaniaren jabekuntzan lortutako emaitzak aztertu dituzte (55 ikastetxetako 10.000 ikaslelik gora). Azterketarako eredu hierarkiako bat erabili da eta bertan, ikasleen lortutako gaztelaniazko emaitzekin batera, beren familia ingurune eta ikastetxeko aldagaiak ere aztertu dira.

— I. Martinez de Luna eta P. Suberbiolarena da hurrengoa: “Measuring Student Language Use in the School Context” (*Ikasleen eskola giroko hizkuntza-erabileraren azterketa*). Artikuluak Arrue ikerketa-programaren baitan egindako ikerketaren berri ematen du. 2005-2006 ikasturtean LMH6ko mailako ikasleen hizkuntza-erabilera neurtu da jolaslekuan (1325 ikasle EAEko 50 ikastetxetan), eta erabilera hori ikasleen zein aldairekin dagoen lotuen aztertu da.

Seigarren artikulua etorkinen gaia du aztergai:

— F. Etxeberriak eta K. Elosegik eginiko artikulua da: “Basque, Spanish and Immigrant Minority Languages in Basque Schools” (*Euskara, gaztela-*

nia eta etorkinen hizkuntza gutxiagotuak euskal eskoletan). Azken urteetan ikasle etorkinen kopuruak gora egin du, eta hauen eskolaratzeak ez ditu jarraitu bertakoen egungo joerak. Etorkinen integrazioari begira bereizketa horrek dakartzan arriskuak eta eskolak gai honetan dituen erronkak aztertzen dira, besteak beste, lan honetan.

Azkenik, Ikastolen mugimenduaren oinarriak eta gaur egun garatzen den Hizkuntza Proiektuaren azalpena egiten da:

— I. Elortzak eta Inma Muñoak eginiko artikulua da: “Promoting the Minority Language Through Integrated Plurilingual Language Planning: The Case of the Ikastolas” (*Ikastolak: hizkuntza gutxiagotuaren aldeko lana hizkuntza-plangintza integratu eleanitzaren bidetik*). Ikastolen hizkuntza-plangintzaren oinarriak azaltzen dira bertan, euskaraz irakastea legez kanpoko zenetik hasita eskolako Eredu Eleanitz Integratura, eta hortik gaur egungo Hizkuntza Proiektu orokorraren erronkara.■